

‘-A’ EUSKAL ARTIKULU DEFINITUAREN GAINEAN ZENBAIT OHAR

Julen Manterola

► **To cite this version:**

Julen Manterola. ‘-A’ EUSKAL ARTIKULU DEFINITUAREN GAINEAN ZENBAIT OHAR. ‘-A’ EUSKAL ARTIKULU DEFINITUAREN GAINEAN ZENBAIT OHAR, 2006. artxibo-00142080

HAL Id: artxibo-00142080

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00142080>

Submitted on 17 Apr 2007

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L’archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d’enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Izenburua - Title

‘-A’ EUSKAL ARTIKULU DEFINITUAREN GAINEAN ZENBAIT OHAR
(SOME REMARKS ON THE BASQUE DEFINITE ARTICLE ‘-A’)

Egilea - Author

Julen Manterola Agirre

Non argitaratua - Published in

R.L. Trasken omenaldian agertzekoa, ASJU XL, 653-678, J.A.
Lakarra & J.I. Hualde (arg)

To appear in a volume to the memory of R.L.Trask, ASJU XL, 653-
678, ed. by J.A. Lakarra & J.I. Hualde.

Urtea – Year

2006

Testuaren izaera - Version

ZIRRIBORROA – DRAFT

Sarean non eskuragarri - Available at

<http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/>

‘-A’ EUSKAL ARTIKULU DEFINITUAREN GAINEN ZENBAIT OHAR

Julen Manterola Agirre¹
EHU

1. Sarrera

Lan honek egun “artikulu definitu” gisa izendatzen dugun elementua du aztergai, euskalki guztietan garai historikoan aurkitzen dugun eta izen sintagma osoaren atzean ezartzen den ‘-a’. Morfema hau ikuspegi diakronikotik aztertuko dugu. Horretarako gai honetan etorkizuneko ikerlerroak zein izan daitezkeen ezarriko dugu, eta arlo horietako zenbaitetan egindako urratsak aurreratuko.

Lehenik behar genuke hasi zehazten artikulu definitu bat zer den. Lan horretan hasi bezain laster ageri dira horrelako kategoria baten ezaugarriak zehazten dauzkagun arazoak: parekotzat, balio berekotzat jo nahi ditugun elementuen artean hizkuntza-arteak dibertsitateak parekatze hau zailtzen du, artikulu definituaren hizkuntza-arteak karakterizazio batua konplikatu; hizkuntza bateko eta beste artikuluaren erabil eremua ez da berdina izaten, dela egitura sintaktikoan artikulua daramaten izen sintagmen funtzio diferentarengatik (subjektu, objektu, esaldi pre-/postposizional batean...), dela artikulua daraman izenaren izaera semantikoa medio (izen zenbakarria den, zenbakaitza²...). Bestalde, egoera ñabar hau areagotzeko, hor dugu artikulu horien jatorriak ekartzen duen irizpide gehigarria: munduan diren artikulu definitu guztiak ez dira erakusle urrunetik heldu, hauxe baldin bada ere jatorririk ezagunena eta tipikoa, mendebaldeko hizkuntzetan bederen. Frajzyngierek (1996) gogoratzen duen bezala, aditzak ere izan daitezke horien sorburu, Afrikako hizkuntza txadikoetan gertatutakoa frantsesez erdibidean geratu den “*dire*” aditzaren gramatikalizazioarekin parekatuz (gogoan izan, espainolez ere nola har lezakeen balio anaforikoa “*decir*” aditzak berak, ‘*dicha casa*’ bezalako adibideetan); halaber, Masicak (1986) iradokitzen duen bezala, Asiako hizkuntzetan hain hedatuak diren klasifikatzaileek ere balezakete zerikusirik definitutasunaren markatzean, izan ere hango zenbait hizkuntzatan, bengali indo-iraniarra kasurako, eta kontzeptuen arteko hurbiltasunaren adibide, inoiz klasifikatzaileak “definitutasun partikulak” deitu izan baitira.

Hau guztiau ezinbesteko lan suertatzen bada ere, hots, artikulu definitu kategoriaren ezaugarritatze eta xedatzearena, seguraski ere definitutasunaren teoria batez lagundua lihoakena, guk soilik ‘-a’ morfemaren bilakaera diakronikoaren berri ematen saiatzea dugu xede; hori dela eta, guk erabiliko dugun “artikulu definitu” terminoa, edo hobe esan “artikulu” terminoa, erabat neutroa izango da inongo teoriarekiko hemen.

Euskarazko artikulu definituaren kasuan egokia izan liteke abiapuntu neutro hau, izan ere aspaldi ohartarazia baita ‘-a’ horren balioa definitutasun markatzaile hutsarena baino haratago doala. Maila deskriptiboan ari dela hala dio Traskek (2003: 119):

The label ‘definite article’ is misleading, since this article is of much broader use than the English definite article.

¹ Egilea Eusko Jaurlaritzako doktoreak prestatzeko diru-laguntzen programan barrenean dago, eta hona eskerra. Era berean, lan honen gainean zenbait ohar eginez lagundu nauten Céline Mounole eta Joseba Lakarra eskertu nahi nituzke.

² Bi termino hauek, *zenbakarri* eta *zenbakaitz*, espainolez erabili izan diren *concreto* eta *de masa* terminoen baliokide gisa erabiltzen ditut, Euskaltzaindiak (1993: 41) ematen duen bezala.

Egungo euskarak duen ‘-a’ morfemaren inguruko zenbait gai jorratuko da ondorengo ataletan, hortaz. Ez dugu horietan sakon joko, baina haietako bakoitza artikuluen gainean egin daitezkeen azterketen lan ildo bezala aurkeztu nahi dugu; horregatik ondorengo ataletan ikusiko duguna ez da izango arazo baten inguruko arrazoibide bete eta borobila; aitzitik, ikusiko duguna zenbait auzi desberdinen gaineko ohar multzoa izango da. Ondoko atalean, bigarreanean, artikuluen gainean ezarri diren analisi sinkronikoek diakroniarekin zein lotura duketen argitzen saiatuko naiz, hein batean, bederen; hirugarren atalean bigarreanean emandako lotura eta irizpideak egungo aldaera dialektologikoen argitara ikusi nahiko ditut. Laugarrenean erronkarierazko erakusleen gaineko ohar bat emango dut, eta ondoren postposizio sisteman artikulua nola hedatu den aztertzea joko dut. Bosgarren atalean laburpen ttiki bat emango dut.

2. Ikuspegi sinkronikoa eta diakronikoa

Artikuluen tipologia egiteko hurbilketez ari denean, bi modu nagusi aipatzen ditu Himmelmannek (2001): batetik definitutasuna adierazteko hizkuntza naturalek darabiltzaten estrategia gramatikalen zerrendatzea egiten duena, definitutasunaren eta erreferentziaren gaineko teoria, esan dezagun sinkroniko, bat eraikiz (Masica (1986) horren adibide izan liteke), eta bestetik artikulua historikoki beste nonbaitetik eratorritako elementu gisa aztertzen dituen, hau da, erakusleek eta bestek izenen ondoko funtzioetan jasaten duten gramatikalizazio bilakaeraren faseak ezarri nahi dituen. Horra bada artikuluen tipologia egiteko bi modu; bada, hala ere, artikulua definitua aztertzeko beste modu bat gutxienez, tradizio sortzailetik heldu dena, eta artikulua definitua izen sintagmaren egitura funtzionalean zein toki duen zehazten saiatzen dena.³ Lan sinkroniko hauetan, euskarazko izen sintagmen egitura zertan den zehazten saiatzen direnen artean, Artiagoitiaren lanak (1998, 2003) ditugu ezinbesteko aipagai, guk aztergai dugun ‘-a’ horren zenbait gorabehera azaleratuz.

Atal honetan agertu nahi genuke, modu labur batean, egituraren azterketa sinkroniko baten eta bilakaera diakronikoaren arteko harreman zertan den, eta bateko eta besteko emaitzak nola uztar eta ez hain modu diferentean uler daitezkeen.

2.1. Artiagoitia (2003)ren proposamena

Artiagoitia (1998) lanean euskal izen sintagma (IS hemendik aurrera) Abney (1987)k ingelesezkoa aztertzeko erabili zuen determinatzaile sintagma (DS hemendik aurrera) kategoria funtzionalaren arabera aztertzen du Artiagoitiak. 2003ko lanean, aldiz, Longobardiren lanak lagun, determinatzailearen eta izenaren arteko beste kategoria funtzional bat proposatzen du, ingelesarekin eta italiarekin euskarazko DS batzuek duten jokabide ezberdinen bidetik; jokabide ezberdin hau normalean zera da, beste hizkuntzek artikulurik ez duten tokian euskarak artikuludun sintagma agertzea.

Hizkuntzen arteko alde hau adibidezatzeko bi izen motari begiratzen zaie bereziki: izen zenbakaitz singularrei (‘*ardoa*’, ‘*ura*’... bezalakoak), eta pluraleko izen zenbakarriei (‘*aulkiak*’, ‘*trenak*’, ‘*autoak*’...). Ondoko perpausak ematen dira irakurketa ezberdinen gorabeherak aurkezteko; bere (8)koak errepikatzen ditut hemen, bere glosekin, eta etzanean ematen ditut aipagai diren DS-ak:

³ Hizkuntzalaritzako tradizio honen bidetik bestelako lanak ere egin izan dira, umearen jabekuntza prozesua eta gramatikalizazio diakronikoarena paraleloan ezarriz. Honetan adibide esanguratsua da bi alor horiek determinatzaile sintagmarekiko aztertzen dituen Osawa (2003) lana.

- (1) a. *Trenak* heldu dira. a'. ** *Tren* heldu dira.⁴
 '(The) trains arrived'
 b. *Ardoa* edan dut. b'. ** *Ardo* edan dut.
 'I drank (the) wine'

Ikusten dugun bezala a' eta b' -ko perpausak ez dira gramatikalak, ez baitute inongo determinatzaile edo artikulurik. Baina orain eztabaidarako inportanteagoa dena zera da: Artiagoitiak dioten bezala, hizki etzanetan diren sintagma hauen interpretazio bikoitzaren berri ematen dute glosek, eta "specific description" gisa zein "existentially quantified expression" gisa irakur daitezke, Artiagoitiaren terminoetan. Hots, irakurketetako bat definitua da eta bestea indefinitua, edo, nahiago bada, inongo terminologiatan sartu gabe, bata artikulua definituarekin itzultzen da gainerako hizkuntzetan eta bestea batere gabe. Kontua da bitxia dela irakurketa existentziala edo indefinitua hartzea berez definitua markatzen duen morfema batek; auzi honetara italiarren eta ingelesaren adibideak dakartza autoreak, gogoratu irakurketen arteko aldeak morfologian ere islatzen direla hizkuntza hauetan, irakurketa definituarentzat artikulua definitua erabiliz eta existentzialarentzat [Ø] artikulua nuloa. Honen aurrean aukeretako bat zera da, esatea euskarazko '-a'k beste hizkuntza horietako bi morfemen funtzioa biltzen dituela bere baitan, morfema bakarrean. Baina, era berean gogoratzen du euskaraz ere (aipatzen dituen italiarren eta ingelesean bezala) kanpo-argumentuek ez dutela interpretazio existentzialik onartzen, honako perpausak adibide (bere (10b.)):

- (2) *Trenak* aurreratu gaituzte.
 ** (the) trains have passed us'

(2)ko euskarazko esaldia eta ingelesezko glosa irakurketa bakarraren lekuko, ondorioztatzen du erromantzeko eta ingelesezko murriztapen sintaktiko beretsuak dituela artikuludun euskal IS-k, baina paradoxikoki artikulua agertzen duela euskaraz murriztapen horrek kanpo uzten dituen inguru sintaktikoetan ere (barne argumentuetan, alegia, (1)en ikusi bezala). Hau moldatzeko, eta Longobardi eta erromantzea zein ingelesa jarraituz, egitura bana ematen du interpretazio bakoitzeko, irakurketa existentzialarentzako D gunea hutstzat joz. Horrela (bere (11) eta (12)):



- a. Irakurketa existentziala / indefinitua, "*I drunk wine*"eko objektuak duena.
 b. Irakurketa espezifiko / definitua, "*I drunk the wine*"eko objektuak duena.

⁴ Bi izarrekin adieraziak ematen ditu forma ez gramatikalak (**) eta bakarrarekin forma berreraikiak (*).



a. Irakurketa existentziala / indefinitua, “*I saw **trains***”eko objektuak duena
edo
“***Trains** arrived*”eko subjektuak duena.

b. Irakurketa espezifikoa / definitua, “*I saw **the trains***”ko objektuak duena.
edo
“***The trains** arrived*”eko subjektuak duena.

Agerikoa da, beti bezala, arazoa da zergatik irakurketa existentzialeko XS (proiekzio funtzional ezezagun) hori morfologikoki DS oso baten berdina den azalean, zergatik diren isomorfiko; hots, arazoa irakurketa existentzialetako XS horren izaera zehazten, edo zer den esaten saiatzen garenean dator. Aukerei begira, XS hori IS hutsa izan litekeela dio, edo bestelako buru funtzionalen bat, izenarekin zerikusia daukana. Lehen aukera baztertzen du, bigarrenarekin aurrera joz, baina aukera logiko gisa agertze hutsa sintomatiko deritzogu, IS hutsaren aukera ere ez baita, beharbada, hain urruneko kontua, beherago ikusiko dugun bezala.

Bi puntutan laburbil dezakegu Artiagoitiaren lanaren gaineko oraingo gure interesa:

1.- Irakurketa bikoitx horrentzako proposatzen diren bi egiturentzako ebidentzia gisa kuantifikazio existentzialaren gaineko murriztapen sintaktikoa erabiltzen da: (2)ko adibideko kanpo-argumentuan gaineko irakurketa bakar horri begiratuko diogu.

2.- Bi egitura horiek proposatzearekin batera etortzen den XS horren izaeraren auzia, eta IS gisa hartzearen aukerari erreparatuko diogu.

Ohar orokor gisa, azken bi puntu hauek ere barne hartzen dituen, gogoratu beharrekoa da DS-en egituren proposamen hau bi izen mota jakinen gainean eraiki dela, zenbakitzaiek eta pluralezkoak soilik aintzat hartuta, hain zuzen.

2.1.1. Artiagoitia (2003)ren proposamenarentzako datu gehigarriak

Bada Artiagoitia (2003) lanean esplizitoki agertzen ez den auzi zenbait DS artikuludun, artikulugabe eta haien irakurketa aukeren inguruan. Adibide zehatzen bitartez agerrarazten saiatuko naiz.

a) Badirudi irakurketa aukerak izenaren izaera semantikoaren arabekoak ere badirela:

(5) a. Gizona⁵ iritsi da.

b. Ardoa⁶ iritsi da.

⁵ Bide batez, adibide honen arabera aurrera genezake barne-argumentuetan ere, zenbait kasutan, badela irakurketa bakarraren, definituaren aldeko murriztapena artikuludun DSetan.

⁶ Adibide honetan *ardoa*-ren tokian *jendea* jarri ahal izateak, irakurketak berdin gordez, erakusten du auzia zertan datzan, edo zertan ez datzan bederen, horrela ikusten baitugu bizidun/ez-bizidun kontua ez dela.

Bi adibide hauetan aldagai bakarra izenen ('gizona', 'ardoa') izaera semantikoa da: (5a.)n izena zenbakarria da eta irakurketa bakarra bideratzen du; eta (5b.)n, aldiz, izena zenbakaitza da, eta bi irakurketak onartzen ditu.

Bada horrelako adibideen harian aipatzekoa den beste kontu bat, ez seguru aski hemen agertu nahi dugun ideia nagusiarekin zerikusi zuzena duena baina bai, beharbada, barne eta kanpo argumentuen arteko irakurketa ezberdinen auzian zeresana eman lezakeena; izan bezate ondoko adibideok eztabaidan sartu berri diren datuen balioa:

- (6) a. Tren horretan gizona iritsi da. b. Tren horretan ardoa iritsi da.

(5) eta (6) adibideek irakurketa aukera pare-parekoak dituzte, bietako (a.)n DS-k irakurketa bakar, definitua hartzen baitu, eta (b.)n DS-k biak onartzen baititu. Ikus ditzagun, baina, (7)n emango ditudan esaldiak, (6)koen pareko direnak oro har, elementuen hurrenkeran izan ezik. Hona hitz hurrenkeran kanonikoaren araberrako (6)ko esaldien moldaketa:

- (7) a. Gizona tren horretan iritsi da. b. Ardoa tren horretan iritsi da.

Alde nagusia (6b.)tik (7b.)rako honetan dugu: ez dut beharbada oso termino ortodoxotan formalizatuko, baina itxura guzieren arabera, DS aditzetik urrutiago, kanpora atera ahala, irakurketa existentziala galtzen da. Honi begira, seguraski gorde genezake kanpo-argumentuen murriztapenera eraman gaituen intuizioa, eta bide horretatik beste hauek ere azaldu. Ez dugu hemen, hala ere, fenomenologia honen azalpena ematen hasteko asmorik, noski topiko eta galdegai kontuak sartu beharko bailirateke jokoan; era berean, ez dugu adibide hauen araberrako egitura proposamenik egingo DS-ri dagokionez, helburua ez baita oraingoz hori, izenen hautaketan bestelako irizpideak ere aintzat har daitezkeela gogoratzea baizik.

Dena dela ere, adibide hauek berresten dute atal honetan adierazi nahi izan duguna, hots, irakurketa aukereei dagokienez izen ezberdinen arteko aldean azalera, ikusten den bezala (5a.), (6a.) eta (7.a)ko 'gizona'k beti irakurketa bera baitu, 'ardoa' bere konparagaiak ez-bezala.

b) Lehenago ere aurreratu dugu, baina modu esplizitoagoan gogoratzekoa da, izena biltzen duen DS-ren funtzio sintaktikoaren arabera ere irakurketak aldatzen direla. Adibide hauetan, Artiagoitiak bere lanean agertu duen kanpo-argumentuaren gaineko murriztapenaz gain, barne-argumentuaren gaineko murriztapena ere agertzen da:

- (8) a. Julenek autoa erosi du. b. Autoa etorri da.

(8a.)ko 'autoa'k bi irakurketak dituen bitartean (8b.)koak bakarra onartzen du, erreferentzia definituarena, hain zuzen ere. Bi perpaus hauekin, beraz, ikusten dugu nola DS berak, subjektu edo objektu gisa aritu, interpretazio diferenteak hartzen dituen. Orain, barne/kanpo argumentuen terminologiara itzultzen bagara, ikusten dugu (8a.) zein (8b.)ko 'autoa' barne-argumentua dela bietan, irakurketa diferentekin batean eta bestean. Hau dena gogoan hartuz, beraz, kanpo-argumentuen murriztapena osatu beharko da, beharbada, ez baitira soilean horiek irakurketa bakarrek murriztapena dutenak; era berean, aipatu ditugun barne-argumentu horietan behintzat egiletasuna, jasaletasuna eta halakoak hartu beharko dira

irizpide seguru aski, (8)k iradokitzen duen bezala bai baita alderik argumentuaren rol tematikoa “aktiboagoa” edo “pasiboagoa” den,⁷ egiletasun mailari gagozkiolarik, jakina.

Atal honetan eztabaidara ekarri ditudan datu gehigarrien azalpenik ez dut eman, ez behintzat beharko nukeen moduan, Artiagoitiak darabiltzan egiturazko eta proiektzio funtzionalen terminoetan; baina atal honen helburua ez zen hori, eta bertan gogora ekarri nahi izan dudana gauza bakarra ondokoa da: artikulua definitudun (‘-a’du) DS-en irakurketak (bere erreferentzialtasunari dagokionez) hainbat faktoreren arabera direla, horien artean DS horretan biltzen den izenaren izaeraren arabera eta baita DS horrek perpausean hartzen duen funtzio sintaktikoaren arabera ere. Puntu horiek ere aintzat hartzeak izango dira, beraz, egungo euskal DS-ren egitura funtzionala zertan den zehazte aldera, baina baita, orain ikusiko dugun bezala, artikulua definituak IS ezberdinen artean izan duen hedapen diakronikoa arakatzeko tenorean ere. Horretara joko dugu orain.

2.2. Greenberg (1978) eta Company (1991)

Egungo euskal artikulua “definituak” duen jokabidea, bestalde, erakusleak artikulua “bihurtzen” dituen prozesuaren puntu bateko isla gisa ikusi beharrean gaude. Bilakaera horrengatik ditugu, besteak beste, hizkuntzen arteko artikuluen erabilera diferenteak, baita antzekoenetan ere; ikus Artiagotia (1998 eta 2003)k berak ematen dituen ingelesaren eta erromantzearen adibideak, biak ere elkarrengandik hurbilago euskararengandik baino, artikulua definituen jokabideaz denaz bezainbatean, bederen. Hizkuntzen arteko alde hauen iturria bakoitzaren garapen diakroniko diferentean ezarriko dugu guk; honek, argi da, artikulua definituaren definizioa zailtzen du, gogoan hartuta gainera kontzeptu hori Europako hizkuntzetatik abiatutakoa dela. Horrela, bada, zenbait hizkuntzatan artikulua ba ote zen ezartzeko, jadanik bere gramatiketan kontzeptu hori onartua zuten hizkuntzetara jo izan da, Europakoetara, alegia (ingelese, frantsesa, kasurako). Artikulu definituaren kategoria hori, beraz, hizkuntza-arteak eraketatik etorri da zenbait horietan; adibide onak dira auzi honetarako Montagnais hizkuntza algonkiarra (Cyr (1993)), non artikulua zer den eta zer ez den arazoaren muina jotzen den, eta txinera bera, Huang (1999) lanean jorratutakoa. Bi hizkuntza hauetan abiapuntua bera da, hizkuntza horietako gramatiketan ez baita inoiz artikulua definituaren kategoriarik aitortzen; hartara, Cyr-ek “cross linguistic quantification” delakoaren bitartez, eta Huang-ek antzeko irizpideak erabilia, ezartzen dute bere hizkuntzetan erakusletzat jo izan dena askotan artikulua definitua dela soilik, berau hartzen duten egiturak eta hedaturak beste hizkuntzetako artikuluekin baitira parekagarri, eta ez erakusleekin. Lan hauen hazia, atal honetako gai nagusira itzuliz, Greenberg (1978)k emandako erakusle/artikulu definitu/izen markatzaile morfemen bilakaeraren ezaugarritzean aurki dezakegu. Bertan hiru aro proposatzen dira hasieran erakusle zen morfema horren hedapenean, lau aro, aintzat hartzen badugu zero aroa erakuslearena dela. Bilakaera honen “bukaera”, inon bukaerarik bada, hirugarren aroan ezartzen du, non behialako erakuslea izen guztietan ageri den marka hutsa baino ez den, hauen izentasuna baino adierazten ez duena. Honen adibide hausa hizkuntza txadikoa litzateke, Nigeria eta Nigeren hitz egiten dena; bertan izenen %99ak amaierako bokal luze bat erakusten du, garai bateko artikuluen aztarna. Eman dezagun horren adibideren bat, bokal laburreko bertsioa ere baduen izen batena, esanguratsua daitekeelakoan: beti ere Greenbergi jarraiki, ‘gàmbó’ hitza bikien ondoren jaiotako umea adierazteko erabiltzen den izen arrunta da eta ‘Gàmbó’, aldiz, izen arrunt horren bertsio bokal luze gabea, ume horri eman dakioken izen berezia. Esanguratsua da izen berezia izatea bokal laburra daukana, hain zuzen ere halakoak, pertsona izenak, izaten

⁷ Interesgarria izan liteke, halaber, ikustea Silverstein (1976)n proposatzen den bizitasun (“animacy hierarchy”) eskalak ba ote duen horrelakoetan inongo eraginik.

baitira artikulua hartzeko zailtasun handienetakoak dituztenak hizkuntza guztietan oro har, bere berezko definitutasuna medio.⁸ Era berean adierazgarri suertatzen da horrelakoez gain mailegu berriak izatea bokal luzerik gabekoak, azaleraziz izen horiei ez zaiela inongo artikulurik ezartzen beste izen zaharretan artikularen konzientzia ere galdua baita.⁹ IS-ek, beraz, bere baitan dute txertatua garai bateko erakusle/artikulu definitua halako hizkuntzetan. Tarteko aroak ezaugarritzeko, I eta II deitzen dituen, egitura diferenteak ekartzen ditu gogora, eta horietan izenen forma artikuludunak edo artikulugabeak nagusitzen diren begiratzen, esaterako esaldi existentzialen subjektuak, predikatuak... Arazoa da II. aro hori ezaugarritzean modu negatiboan egiten duela gehienetan, esanez zein egituratan artikulua EZ den agertzen. Arazo honen harira gogora ekarri beharra dugu artikularen hedapenaz ari garenean asumitzen duguna: artikulua egitura eta sintagma batzuetatik besteetara hedatu dela, eta, beraz, aro diferenteetan hedadura diferenteak izan dituela. Era berean, pentsatzekoa da prozesu horren garai batzuetan artikulua hartu zuten egiturek, hurrengoetan ere hala gorde dutela, pixkan pixkana IS gehienetara zabalduz. Horrela bada, arestian aipatu dugun ezaugarritze negatiboak nahasmena ekar lezake, I eta II aroetako ezaugarriak nahasiz. Kontuak kontu, eta ikusita euskarak zein egituratan erakusten dituen artikuludun formak ondoriozta dezakegu Greenbergen arabera II.etik III. aroetako horretan dagoela gure hizkuntza.

Baina aro eta sailkapenak baino, ezinbestean hertsia direnak, beti da interesgarriago gauzak nola gertatu diren zehatz agertu eta deskribatzea, eta zein arrazoi eta jarraibide segitzen duen morfema horrek egituratik egiturara eta funtzio sintaktikotik funtzio sintaktikora hedatzean. Honetarako baditugu hizkuntza batetik bestera errepikatuak ikusten ditugun patrioak, hasieran erakusle zen elementu horren gramatikalizazio eta hedapenaren bilakaerarenak, eta hartara espainolaren, frantsesaren, suomieraren eta txineraren artikuluen garapenaren arteko antzekotasunak ikus ditzakegu. Companyk (1991) horrelakoen sistematizazioa egin zuen Erdi Aroko espainolarentzako, bi irizpide nagusi bereiziz espainolaren artikulua definituaren zabaltearako: batetik IS-ek zuten funtzio sintaktikoarena, eta bestetik IS horietako buru zen izenaren izaera semantikoarena. Bigarren irizpideari jarraiki, ikusi zuen eskala moduko baten arabera zabaldu zela artikulua; izen zenbakarriak berak aztergai dituen mendeetarako artikulua txertatua dute, eta ondoko izen mota hauetan hurrenkera jakin hau izan zuen artikularen hedatzeak:

1. Lehenik giza izen generikoetara zabaldu zen ('*moros*', '*maestros*'...).
2. Gero erreferentzia bakarreko izenetara ('*infierno*', '*paraíso*', '*sol*'...).
3. Azkenik izen abstraktuetara eta zenbakaitzetara, egun ere bariazioan direnak ('*fuego*', '*alma*'...).

Bestalde, perpauseko funtzioaren arabera, eta izenarentzat subjektu, objektu eta preposizio sintagma posizioak hartuz aintzat, ondorio du subjektu posizioa izan zela artikularen zabaltearen bultzatzaile. Momentu berean, Huangek (1999) txinerazko artikularentzako objektua ematen du aldaketaren abiagune;¹⁰ dena den, garrantzizkoa dena

⁸ Euskaraz, egun horrelakorik ez badugu ere, gogora ekarri beharrean gaude Kapanagak, Betolatzak eta bestek erabiltzen zituztenak, '*Franziskua*', '*Iesusa*' bezalakoak. Mitxelenak (1955) eta Lakarrak (1983) biltzen dituzte horien zenbait lekukotasun. Bide batez, mendebaldeko adibideak hauek, gorago aurreratu bezala artikulua lehenik zabaldu zen eskualdea.

⁹ Ez dakit zenbateraino egoera berdinen adierazle diren hiztun gazte zenbaitengan aditu daitezkeenak, zenbait hitz berri eta mailegaturekin egiten direnak: '*nahi duzu jogur?*' bezalakoak, edo askoz esanguratsuago, Bergarako hiztun bati entzundako pareak: '*ipini tele*' baina '*ipini telebisinua*'.

¹⁰ Bi hizkuntzen arteko alde hau hitz ordenaren ezberdintasunen arabera azal liteke, beharbada: espainolaren artikulua zabaltean ari denean SOA > SAO hurrenkera aldaketa gertatzen ari dela aitortzen du Companyk berak,

hemen zera da, perpausean IS-k duen funtzioak baduela artikulua definituaren hedapenean zeresana, eta hobeki azaldu beharreko gertakaria dugula hau ere.

2.3. Sinkronia eta diakronia

Aurreko bi azpiataletan, artikulua definituaren alderdi sinkronikoaz arduratzen zena bata, eta alderdi diakronikoaz bestea, bi irizpide nagusi eman ditugu berorren azterketarako ezinbesteko suertatzen direnak: batetik ikusi dugu izenen izaera semantikoari begiratzeak zein esangura duen bai determinatzaile sintagmaren egiturazko azterketa sinkronikoarentzako bai artikulua hedatzea diakronikoki horren arabera neurtzeko. Bestetik agerian utzi dugu ikuspegi diakronikoan zein sinkronikoan izena hartzen duen determinatzaile sintagmaren funtzio sintaktikoak ere eragina duela artikulua jokabide sinkroniko zein hedatze diakronikoan.

Ikusi dugunez, deskripzio sinkroniko batek zenbait irizpide gehigarri ere bere barrenean hartu beharko luke, hain zuzen ere artikulua definituaren hedatze diakronikoan ere esanguratsu direnak. Hortxe sinkroniaren eta diakroniaren banaezina.

Bada ahantzi gabe gogoratu nahi nukeen azken gauza bat: joera diakroniko gisa Greenbergekin zera aipatzen du, hasieran artikulua definitudun diren izenek izen sintagma huts izaten bukatzen dutela, garai bateko artikulua izen markatzaile soila delarik izen horietan (hausu hizkuntza afrikarra eman dugu 2.2. atalean). Bestalde ikusi dugu, Artiagoitiak gerora baztertzen badu ere, izen artikuludun zenbaitentzako badela, egituraren arabera, beroriek IS huts gisa analizatzeko aukera logikoa. Pentsa genezake aukera hau arestian aipatutako joera diakronikoaren isla izatea, DS-ren egitura analizatzeko aukera onena ez bada ere. Honen guztiaren erakusle, beharbada, zenbait hizkeratan gerta daitezkeenak ditugu, mendebaldeko IS-k artikuludun eta erakusledun batera izan ahal izatea, kasurako, baina baita Bidasoa aldean entzun daitezkeenak ere, *'laguna bat'* eta halakoen modukoak. Nago, Artiagoitiaren analisisetan ere, horrelakoak modu bakarrean analiza daitezkeela eta hain zuzen "artikuludun" izena IS huts gisa hartuz dela modu hori, bestelako proiektzio funtzionalik behar izan gabe.

3.- Artikulua hedatzerako ebidentzia dialektologiatik: Ekialdeko euskarak

Oraintxe berean aipatu dugun Bidasoa aldeko gertaera lokal horretaz gain, badugu euskal dialektologian orain arte aipatutakoen erakusle zabalago eta hedapen handiagokorik; adibiderik agerikoena ekialdeko euskaretan artikulua definituarekin gertatzen (ez) direnetan dugu. Gauza jakina da ekialdeko euskara horietan artikulua gutxiago erabiltzen dela, edo, esan dezagun bestela, mendebaldean *'-a'* ezarriko litzatekeen hainbat testuingurutan ekialdean ez dela jartzen. Honen muturreko adibide gisa erronkarierazko zitazio formak aipa ditzakegu, non, beste euskalki guztietan ez bezala, edozeren izenaz galdetuz gero artikulurik gabeko formak ematen zituzten, Traskek (1997: 200) aipatzen duen bezala; adibideetarako Mariano Mendigachak Azkeri bidaltzen zizkion gutunetara jo daiteke, Irigoyenek (1957) argitaratu emanak.

Eman dezagun orain ekialdean gertatzen direnen berri, zehazki Behe Nafarroako¹¹ datuak ekarriz gogora, aurreko atalean agertutakoei bestelako adibideak gehitzeko; hartara ikusiko dugu nola bariazio diatopikoak ere lehen aipatu ditugun irizpide gehigarrien balioa berresten duen. Esaldi existentzialak, predikatuak eta objektu pluralen gorabeherak aipatuko ditugu banaka:

eta txinerarentzako, aldiz, SAO > SOArako aldaketa dugu, bestelako lanetan ere ikus dezakegun bezala, Li & Thompson (1974, 1975), adibidez.

¹¹ Eskerrak eman nahi dizkiot Maitena Xohobigarati datuon juzkuak segurtatzeko emandako laguntzarentatik.

1) Esaldi existenzialak. Hauetan badirudi badela lehenago aipatutako izen zenbakarrien eta zenbakaitzen arteko aldea. Hualde & Ortiz de Urbina (2003) lanean bitan aipatzen dira, gutxienez, egitura existenzialak, behin artikularen gorabeherez ari direla, eta beste behin esaldi existenzialen deskribapena emateko tenorean. Bi hauek aipatzen ditut bietan adibide modu diferenteak ematen baitira existenzialei dagokienez. Eman ditzagun Trasken lan horretako hitzak (2003: 119-120):

The label 'definite article' is misleading, since the article is of much broader use than the English definite article. It occurs: [...] (e) in an NP which is the subject of a non-negative existential sentence [...] (73) Ogi-a dago mahaian

Eta esaldi existenzialak direnean hizpide Etxeparek (2003: 368) du hitza:

Existential sentences are constructed with the verb *egon* in most Basque dialects: [...] (513) b. Gizon bat atean dago.

Bi hauetarik ondorioa argia da, esaldi existenzialeko subjektua den IS-ren izena zenbakaitza baldin bada artikulua hartzen du, baina ez zenbakarria baldin bada (mendebaldean bederen):

- (9) a. **Gizona dago gelan. vs. a'. Gizon bat dago gelan.
b. **Liburua dago gelan. vs. b'. Liburu bat dago gelan.

Berriz ere dugu hemen izenaren izaera semantikoaren arabera banaketa. Bide batez, bitxia dena da horrelako egitura batean subjektuak artikulua hartzea, goiko 'ogia' adibide, Milsarkek (1977) definitutasunaren murriztapenarekin gogoratzen duen bezala horietan espresio definituak baztertzeko baitira.

Zer gertatzen da ekialdeko hizkeretan, iparraldekoak esaterako? Horrelako adibideak aurki ditzakegu:

- (10) a. Bada jende kanpinean.¹² b. Bada toki kanpinean.

Ikusten da, mendebaldean artikulua hartuko luketen bi izen ez-zenbakarrik hizkera hauetan ez dute artikulurik hartzen, Milsarken (eta beste hainbat) arabera espero genukeen bezalaxe, bestalde. Hau kontuan hartuta, pentsatu beharrekoa da halakoetan ageri den artikulua ez dela zinezko artikulua definitua, beste zerbait baizik. Horrexen isla beharko genuke ikusi Artiagoitiaren analisia, honek '-a' determinatzailea ez den buru funtzional batean ezarri beharrean kausitzen duenean bere burua.

2) Predikatuak. Hauetan ere aurrekoaren antzeko zerbait da: mendebaldean artikuludun formak ditugun bitartean, ekialdean ez da hala; Greenberge (1978: 67) dioenaren arabera, bestalde, II aroko hizkuntzetan izen predikatuak ez dute artikulurik hartzen, ezta predikatu adjektiboek ere. Ikus dezagun, beraz, zer gertatzen den gure datuekin (etzanean interesaren gune den sintagma):

¹² Egia esan, hemen adibideztatzen dudak ekialdearen eta mendebaldearen arteko aldean askoz xehetasun gehiago eman behar dira; esate baterako, nire informatzailearen arabera honako pareak geneuzkake izen zenbakaitzentzat:

- (i) a. Bada leku. b. Lekia bada.

Orden aldaketak eragindako gorabeherez gain, hona esaldi existenzialetako izen zenbakarriekin gertatzen dena:

- (ii) a. Gizona bada han. b. ** Bada gizona. c. Bada gizon bat. / Gizon bat bada.

Honek guztiak agerian utzi besterik ez du egiten horrelako datuen gainean egin beharreko bilketa eta lana.

- (11) Izen predikatua
 a. Jon *mediku* da. Ekialdean
 b. Jon *medikua* da. Mendebaldean
- (12) Predikatu adjektiboa I
 a. Ez da *polit* (horren egitea). vs. a'. ?Ume hori ez da *polit*.¹³ Ekialdean
 b. Ez da *polita* (hori egitea). vs. b'. Ume hori ez da *polita*. Mendebaldean

Ezezkako adibideak dakarzkite hona hauek baitira eskura ditudan datuak; ez dakit baiezko esaldietan zenbateraino gauzak berdinak diren, baina balio bezate hauek artikularen agertzearen aldagarritasunaren adierazle. Hauen baiezko ordainak, beste hainbeste egitura esanguratsu bezala, kanpo uzten ditut oraingoan, besteak beste luze joko bailuke egitura eta testuinguru esanguratsu guztien zerrenda eman eta adibideztatzeak. Etorkizunik hurbileneko lana da hau, argi da. Bestalde, gogora ekarri nahi nuke ezezkako esaldiak, denbora hipotetikoak eta abarrek izenen erreferentzialitatearen gainean duten eragina (Hopper & Thompson (1980)), eta hartara Greenbergekek berak ezezkako esaldiei esangura berezia ematen die artikuludun-artikulugabe formez ari denean.

Segi dezagun, bada, adibide gehiagorekin:

- (13) Predikatu adjektiboa II
 a. Etxea *handia* da. vs. a'. ?Etxea *handi* da. Ekialdean
 b. Etxea *handia* da. Mendebaldean

Ikusten dugun bezala, predikatuaren gune izena denean ez da duda handirik: ekialdean forma artikulugabea eman dezakete eta mendebaldean ez. Aldiz, adjektiboa denean predikatu gauzak ez dire horren garbi ageri (ekialdeko erabileraz ari naiz, jakina, mendebaldean, b. koak, beti forma artikuluduna baititugu). (12) eta (13)ko adibideekin erakutsi nahi izan dut, beraz, ekialde horretan egun dugun barietatea adjektiboaren eta artikuluen arteko elkarreragintzari dagokionez. Ez dut orain sakonduko zeri egotz dakiokeen adjektiboaren arteko jokaera diferentea; baliteke, lehen esan bezala, ezezkako esaldiek eragina izatea horretan, baina (12) eta (13)ri begira batek galde lezake zein joko duen adjektibo bakoitzaren izaerak; azken galdera hau Milsark (1977)ko lanetik eratorzen da zuzenean. Bertan, esaldi existentzialen ezaugarritzerako, berorietan zein sintagma mota diren zilegi aztertzen da, azkenerako zenbatzaile “ahul” eta “gogor” deitzen dituenen arteko (“weak” eta “strong”) aldea esanguratsutzat jotz (gogoan izan artikulua definitua “gogor”tzat hartzen duela, beronen existentzialetako subjektuan agertzeko ezintasuna agertuz horrela). Era berean, gogora ekartzen du “*There Insertion*” onartzen duten predikatuaren (hots, esaldi existentzialetan predikatu izan daitezkeenetan) badela adjektiboaren izaeraren araberrako muga bat: behin-behineko egoera adierazten dutenak (‘*gaixorik*’, ‘*harrituta*’...) onargarriak dira esaldi horietan, baina denboran zehar dirauen ezaugarria adierazten dutenak ez (‘*argia*’, ‘*altua*’...). Pentsatzekoa da esaldi existentzialetarako ingelesez agertzen den murriztapen modu honek badezakeela zerikusirik izan artikularen hedapenean jokoan diren irizpideekin. Berriz ere izango genuke, hortaz, izen mota baten barrenean, adjektiboetan kasu honetan, artikularen hedatzea azaltzeko garrantziazko datekeen banaketa, kategoria honetan bi adjektibo talde

¹³ Ez-gramatikaltasunaren adierazle diren izartxoak ezarri beharrean galdera ikurra erabili dut predikatuaren adibide hauetan, informatzaileak txartzat ematen baditu ere, adierazi nahi izan baitut ekialderagoko euskeretan, zubereraz alegia, erabat onak direla esaldi hauek. Ikus Alvarez (1977) euskalki honen gaineko zenbait xehetasunerako. Honek, berriz ere, agerian uzten du datuen bilketa sistematiko baten beharra, testuinguruz testuinguru eta euskalkiz euskalki.

bereiztuz. Dena dela ere, aihar naiz horrelakoak zenbat eta ekialderago jo, zubererara, alegia, zalantza gutxiago ematen dutela, forma artikulugabeak nagusi baitira. Ez dugu hemen alde ttiki hauen guztien azterketa xehekatua burutuko, baina argi da, (12) eta (13)ren arteko bariazioari begira ikusmiran jartzen zaigu etorkizunean egin beharreko lana, hizkeraz hizkerako artikulua erabileraren xehetasunak biltzearena, alegia.

3) Objektu pluralak. Kasu honetan objektu pluralez hitz egin beharrean gaude, izan ere, barne argumentuaren etiketa ez baita egoki. Artiagoitiaren lanean barne argumentuak ziren irakurketa bikoitza zutenak (*'trenak heldu dira'* eta *'trenak ikusi ditut'* bezalako adibideetan), baina orain aipagai ditudan eta pluralei dagozkien fenomenoak aditz transitibo zenbaiten objektuetan baizik ez dira gertatzen. Onena adibideekin abiatzea izango da:

- (14) a. Bertsu kantatzen ari izan gira. b. Bertsien kantatzen ari izan gira.

Egia da mendebaldean ere (14a.)koen antzekoak ere baditugula, *'onddo biltzera joan gara'* eta halakoak, baina nago aski eihartua dela horien erabilera; aldiz, (14)ko adibideetan, badirudi eman ditugun bi adibideen arteko kontrastea produktiboa dela, hots, a.ko irakurketa bakarra existentziala litzateke, eta b.koa, mendebaldean ez bezala, irakurketa bakarra izango luke, definitua berau. Bada egitura modu honi egin beharreko zenbait ohar, hala ere: itxura guztien arabera, aditz izenekin baizik ezin da kontraste hau egin, aditzaren aspektua ez-burutua denetan, beraz. Hau horrela gertatzea aise uler daiteke Hopper & Thompson (1980)en ematen duten eskalaren arabera, non izenen definitutasuna eta aditzen aspektua harremantzen diren; harreman honetan aditzaren aspektu ez-burutuak bere objektuaren irakurketa ez-definitua bultzatzen du eta ez-markatuenetzat jotzen. Horrelako testuinguruak dira, dirudienez, inongo definitutasun markarik hartzen ez dutenak, edo gutxienean beranduen hartzen dutenak, ekialdeko euskara hauek erakusten duten bezala. Azkenik, honen guztiaren argitara pluralaren jatorrizko zentzua irakurketa definituarena zela pentsatzeko bidean jar gaitezke, datu hauek irakurketa existentziala beranduagoko zen ebidentzia gisa hartuta.

Ez da bete-beteko azterketa izan hau, bai baitira noski beste hainbat egitura eta testuinguru artikulatu definituaren hedatzean esanguratsu direnak, baina balio bezate euskalkien arteko alde hauek artikulatu definituaren hedatzearen xehetasunak argitzeko, askotan, ikusi dugun bezala, aldeak zinez txikiak baitira, eta aldaketa mikroparametrikoaren isla. Bada, beraz, lana testuinguruz testuinguru, irizpidez irizpide *'-a'* horren hedadura ondo ezartzen, prozesu diakronikoen ondorio gisa agertu eta egungo egoera sinkronikoa azaltzeko. Era berean, eztabaidara ekarri ditugun testuinguru edo irizpide gutxi hauek gauza bat adierazten dute, eta zera da, artikulatu definituaren zabaltzea mendebaldeko euskalkietatik ekialdekoetara izan zela; honen haritik joko dugu hurrengo atalaren hasieran, beste zenbait arazo eta puntu interesgarri plazaratuz.

4. Euskarazko artikulatu definitua mendebaldetik ekialdera zabaldu zen.

Horago ere esan dugu euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, artikulatu definitua erakusle urrunetik eratortzen dela diakronian. Ez da, hala ere, honako hau hipotesi arazorik gabea, ez eta bakarria ere; bai, ordea, arazoak arazo, egiantzekoena. *'*(h)a(r)'* erakusle urrunean ikusten dugunean egungo artikulatu definituaren jatorria (besteak beste Trask 1997), ezin ahantz dezakegu jatorri horren inguruko zenbait auzi argitu beharko dugula, besteak beste berreraikitzen dugun erakusle hori noizkoa den, eta noizkoa Trasken supletibotzat eta beste batzuek (Altuna & Azkarate 2001) forma indartutzat jotzen duten *'hura'*, bizkaieraz ez beste euskalkietako forma. Artikulatuaren jatorria erakusle urrunari estu lotzen zaion neurrian,

erakusle urrunaren kontu hauek ere ezinbestean aipatu beharrekoak dira, gutxienean. Baina bada beste kontu bat, orain eta hemen bertan sakonago aztertuko duguna, erakuslearen eta artikuluaeren arteko harremanean zeresana duena eta artikuluaeren hedatze geografiko progresiboaren berri eman liezagukeena. Jo dezagun erronkarierak eskaintzen dituen datuetara, horixe baita oraingoan arduratuko gaituen arazoa.

4.1. Erronkarierazko erakusle herskari ahoskabeak

Erronkarierak erakusleetan ageri dituen herskari ahoskabeak zaharrenetzat jotzen baditugu, nola azaltzen dugu gramatikalizazio prozesuan bi hotsen artean suertatuko litzatekeen herskari ahoskabe hori erortzea ('***etxe ka(r) > etxea*', '***lan ka(r) > lana*')? Hona, argigarri daitekelakoan, herskari horietaz emandako iritziak:

[...] Aquí unos dialectos navarros, más conservadores al parecer, tienen una oclusiva dorsal inicial que falta en los demás: ronc. *kaur*, sal. *kau*, ronc. sal. *kori*, *kura* [...]. Es natural pensar que la conservación de la inicial sólo era regular cuando se empleaban como adjetivos e iban unidos estrechamente al nombre precedente. [...] En a.-nav. de Elcano, tanto los adverbios como los pronombres tienen inicial vocálica: *or* 'ahi', *ori* 'ese' 'usted', pero *mai-goi* 'esa mesa' (Mitzelena (1961: 247).

Baina, 247. orrialdeko oharra

En a.-nav. de Elcano tienen en cambio inicial vocálica tanto el demostrativo de 3.^a pers. en función de artículo como los otros dos en el mismo empleo: *ene eriaú*, *nere escuaú* [...].

Eta Traskena:

The Pyrenean dialects have *kau(r)*, *kori*, *kura*, or *gau(r)*, *gori*, *gura* for the demonstratives. There is no trace of such initial velars elsewhere, and these forms are mysterious. Michelena in several places concludes that the Pyrenean forms are conservative, and that all other varieties have lost the velars, but not everyone is convinced this is the right interpretation, and some would see the velars as representing some kind of reinforcing particle (Trask (1997:198)).

Bi aipamen hauek aintzat hartuta, argi da zein den eztabaidagune honetara ekarri nahi dudana arazoa: herskari ahoskabe horiek zaharrenak baldin badira, nola gertatu zen zehazki artikulurako bilakaera '**ka(r)*' batetik (eta ez '**ha(r)*' batetik!) ikusita ez dugula egungo artikuluaeren erabileran hasierako hots horren inongo aztarnarik? Ez dirudi Mitxelenak kontu honi garrantziarik ematen dionik (Mitzelena (1979: 451)):

Admitida la identidad inicial de demostrativos y artículos vascos [...] los últimos sufren un cierto número de modificaciones [...]: 2) la aspiración, de acuerdo con una regla más general que no conoce excepción, desaparece, de modo que hay *-or* y también, con otro pronombre *-ori / hori*, al igual que el alto navarro de Elcano distinguía *-au*, *-o(r)i*, artículos, de *-gau*, *-gori*, adjetivos demostrativos [...].

Horra. Arazoa aurkeztuta, beronentzako zein irtenbide logiko atxeman dezakegun dugu hurrengo ekinbidea; hartara gogoratu zaizkidan hiru agertu nahi nituzke hemen, baina, jakina, baliteke besterik ere izatea:

1) Artikulua ez da '**ha(r)*' bezalako zerbaitetik heldu. Hortaz, beste nonbaitetik bilatu beharrean gaude artikuluaeren jatorria:

- de Rijk (1992)ko '**da(n)*'? Interpretazioak honakoa beharko luke: '**da*' erakusle bat izan zen garai batean. Hau oso kontuz hartzeko eta garatzeko hipotesia da.
- Bestalde, hor dago '*-aga*' ere, Mitxelenak berak noizbait behintzat aukera posible gisa azaltzen duena (Mitzelena (1971: 146)):

[...] mis ideas no son nada claras en cuanto a la relación posible de *-aga* con el artículo singular, cuyo origen demostrativo es bien conocido.

Jatorri alternatibo bakoitzaren aldeko eta aurkakoak hobeto adierazi behar dira hemen; hauek, bestalde, momentuan burura datozkidanak eta literaturan aurkitutakoak dira, baina horrek ez du esan nahi bakarrak direnik, ezta egokienak eta posibleenak ere.

2) Edo proposatu behar dugu ezaugarri hau mendebaldetik ekialdera zabaldu zela (honek euskalki bakoitzaren egituratzean dituen inplikazio guztiekin). Hots, mendebaldetik hasi zenean, erakuslearen gramatikalizazioa hasierako herskari hori galdua zuten formatatik abiatu zen, *'ha(r)'* hasperendun formatatik adibidez (ikus eranskinean hasperen horren zenbait lekuko); hortik abiatuta, errezagoa da ulertzea edozein gramatikalizazio prozesutan gertatzen den morfemaren higadura fonetikoa, hasperena baita egungo egoerara iristeko galdu behar dena, eta ez bokal artean galtzeko zailago dirudien herskari ahoskabea (*'-k-'*). Horrela, erronkarierara artikulua iritsi zenerako erabat morfema beregain gisa ailegatu zela pentsatu behar dugu, erakuslearekin loturarik gabekoa. Hipotesi honek aldeko du egun euskalkiek erakusten duten egoera, ekialdeko euskeretako hainbat adibide artikulugabe azalduko bailitzateke honela, hirugarren atalean agertu ditugunak, kasurako. Beste gainerakoan, horrelako hipotesian sakontzeak euskar(ar)en banaketa soziogeografikoan eta bere historia-aurrean bideak irekitzen ditu.

3) Beste aukera da, Mitxelenaren goiko aipamen horretan ageri denaren aurka, Erronkariko erakusle herskaridunak (*'kaur'*, *'kari'*...) berriagoak izatea, nolabaiteko fortizio baten ondorio; Traskek (1997) aukera hau aipatzen du, herskari horiek azaltzeko eman izan diren hipotesien barrenean. Galdera, hemen ere, zuzena da: zein hotsetatik abiatu zen balizko fortizio hori? Hasperenetik ala aezkerazko erakusleetan ikusten ditugun herskari ahostunetatik (*'gau'*, *'gori'*...)?¹⁴ Kontuak kontu, hemengo sakoneko eztabaida, ikusten da, erakusleentzako forma zaharrak berreraikitzearena da, izan ere, Traskek gogoratzen duen bezala, ez baita hau oraindik erabakia eta aho-batez onartzen den auzia.

Agertu nahi izan dudan arazo honetan bada, azkenik, gogoratu beharreko zenbait datu, herskari ahoskabe eta forma hasperendunen arteko balizko alternantziaren eta forma batzuen edo besteren antzinatasunaren adierazgarri:

·Egungo euskararen topatzen ditugun Zuberoako Gamereko *'Etxeberriko Karbia'* (cf. Urkulu ondoko *Harpea*, berdina esanahiz) eta beharbada *'Peña Karria'* (artikuluarekin!) mendiaren izena.

·Egungo euskaratik atzera joz gero, hor ditugu Akitanierazko datuei begira aipatutakoak (Mitxelena (1954), Mitxelena (1961: 256)): *'Halsco'*, *'Talsco'*... Ikusteko dago bi hauetako alternantzia herskariaren kokagune guztietara zabaldua zen.

Erronkarierazko erakusle herskaridunek mahaigainean jartzen duten arazoa moldatzeko emandako hiru aukeretatik bigarrena da egiantz handiena erakusten duena, besteak beste elkarrekiko independente diren argudioak erabil ditzakegulako berori indartzen. Laburbilduz, bigarren aukera honek erakusletiko jatorriaren alde egiten du, orain arteko tradizioan aldarrikatu izan den bezala, eta artikulua mendebaldetik ekialderako hedatzearen ideia azterketaren jomugan ezartzen du. Beste aukerak izan badirela ahantzi gabe, hauxe hartuko dugu abiaburu eta neurri, beraz, hizkuntzaren beste hainbat alderdi aztertzeko

¹⁴ Eskerrak eman nahi nizkioke Jose Ignacio Hualderi herskari ahostunen aukera hau ere kontuan hartzekoa dela aipatzeagatik.

tenorean, ondoren hizpide izango duguna, kasurako: mendebaldetik ekialderako zabaltze horretan nola txertatu zen artikulua postposizio sisteman?

4.2. Artikuluaren hedatzea eta postposizio sistema

Has dezadan atal hau Mitxelenaren aipu batekin (1981: 48-49), ondoren argitu nahi dudan auziaren muina aipatzen baitu bete-betean; atal honetan zehar ikusiko dugu gure ekarpenak zertan moldatzen dituen bertan adieraziak:

Hay, de todos modos, un argumento interno que aboga también por una fecha no remota [*pluralaz ari da*]. En vizcaíno, como se sabe, se cumple, en los temas nominales en *-a*, cierto fenómeno de acomodación (disimilatoria), cuando el artículo determinado sigue a esa vocal: de *domeka* «domingo», tendremos *domekea* «el domingo», erg. *domekeak*, etc. Pero esto, de manera por demás curiosa, sólo se cumple en singular, con la señalada excepción del locativo: *domekaan*, de donde *domekan*, pero nunca ***-ean*. De modo que, mientras de erg. sing. *domeka* + *-a* + *-k* sale *domekeak*, de abs. y erg. pl. *domeka* + *ak* [...] no se sigue más que *domekaak* y, por contracción, *domekak*. Caben otras explicaciones desde el punto de vista descriptivo: no sólo caben sino que sin duda son necesarias. Pero no invalidan, ni pueden hacer concurrencia, a las explicaciones históricas que aquí se reducirían a afirmar que el plural, como el locativo sing., se formó en vasco en época ya tardía, cuando la ley que convertía a *-a* + *-a* en *-ea*, etc., ya no era operante.

Aipu hau abiaburu,¹⁵ ezinbesteko aipagarri suertatzen da artikulua deklinabide sistemaren osaeran izan zuen joko. Atal honetan, esan bezala, postposizio lokatiboaren inguruko bi auzi argitzen saiatuko naiz, bata Mitxelenak “señalada excepción” izendatzen duen hori, hots, lokatibozko postposizioak mendebaldeko euskaretan absolutiboak eta bestek lege duten disimilazioa ez erakustea (*‘aldapea’* baina *‘aldapan’*), eta bestea kontsonantez bukatzen diren izenetan lokatibozko postposizioak hartzen duen *‘-e-’* epentetikoaren auzia (*‘mendi-an’* baina *‘lan-e-an’*), de Rijken (1981) eta besteren proposamenak gogoratu.

Auziari sarrera emateko, kasu eta postposizioen artean lehenik egin litekeen banaketa seguraski artikuludun eta artikulugabeak bereiztearena da, eta bakoitzak artikuluekiko zein jokaera duen ikustea. Egin daitekeen oinarriko banaketa honakoa da: absolutiboak, ergatiboak, datiboak eta genitiboak artikuluekiko “jarrera” bera dute. Besteei dagokienez, leku-kasuetan bereziki (lokatiboa, ablatiboa, adlatiboa) gauzak ez dira horren garbi: artikulugabe edo artikuludun diren ez da horren erraz erabakitzen. Instrumentala, bi komitatiboak (*‘-rekin’*, *‘-gaz’*) eta oro har genitiboaren gainean eraikiak direnak alde batera utziko ditugu oraingoz.¹⁶

Ondorengo bi azpi-ataletan arestian aipatutako lokatiboaren inguruko bi auzi horiek xeheki aztertzen saiatuko gara; horretarako *‘-e-’* epentetikoarenarekin hasiko gara, eta 4.2.2. azpi-atalean Mitxelenaren aipuan adierazitakoa jorratuko dugu.

4.2.1. Lokatibozko *‘*-eCan’* forma berreraikiarentzako proposamen berria

¹⁵ Ez dakit zenbateraino den zilegi honela planteatzea, baina ezin al liteke pentsa, absolutibo pluralarentzako eta lokatibo singulararentzako Mitxelenak dioen bezala, *-a+-a>ea* disimilazioa ez duten euskalkiek ere beranduagokoa dutela artikulua? Edo luzaragoan gorde zutela hasperena? Dena dela erantzuna, aieru hau ondo lihoake artikulua mendebaldetik ekialdera zabalduko zerbaiten gisa ikusi nahi badugu.

¹⁶ Instrumentalak egun aldaerak baditu (*‘eskuz’*, *‘eskuaz’*), baina seguraski definitu/indefinitu kontrastea egiteko. *‘-rekin’* komitatiboak, genitiboaren gainean eraikia den neurrian, ez du harekiko alderik erakusten. *‘-gaz’* komitatiboa interesgarriagoa izan daiteke, beharbada: artikulua darama, eta gainera mendebaldeko euskaretan gertatzen den artikuluen disimilazioa erakusten du; gero ikusiko dugu zertan den garrantzitsu hau.

Esan bezala, leku kasuetan bada zenbait gorabehera artikulua denaz bezainbatean: hasteko adlatibo arruntaren ondoan, ‘-ra(t)’, baditugu Nafarroan ‘-arat’ bezalakoak eta Zuberoan ‘-alat’ bezalakoak. Oraingoan, dena dela ere, ez gara adlatiboazko postposizioaz arituko, lokatiboa baitugu ikusmiran.

Lokatiboaz aritzeak luzeago joko du: ez da beti horren gauza segurutzat eman lokatibodun sintagmetan ageri den ‘-a-’ hori artikulua dela (*‘mendi-a-n’, ‘lan-e-a-n’...*). Mitxelenak, aipuan ikusi dugu, artikulutzat du lokatiboa agertzen den hori, baina Jacobsen, de Rijk eta Traskentzat, adibidez, ‘-a-’ hori beste zerbaiten aztarna da, eta ez da artikulua definitua. Azken autore hauen proposamenaren nondik norakoa emango dut, eta azalduko nondik nora datorren haien ideia hori. Mahaigainean jartzen duten arazoaren abiaburua kontsonantez bukatzen diren izenek lokatiboa hartzen dutenean ageri den ‘-e-’ epentetiko horren azalpena bilatu nahi horretan datza: *‘ibarr-e-an’, ‘zuhaitz-e-an’, ‘lan-e-an’* bezalako adibideak dituzte hizpide, *‘baso-an’, ‘etxe-an’* bezalako ondoan, bokalez bukatutako izenen gainean egindako lokatiboazko sintagma. Banaketa osagarri honi begira, beraz, Jacobsen (1977), de Rijk (1981) eta Trasken (1997) lokatiboaren morfemak ‘*-Can’ formakoa behar zuela (C = kontsonante ezezaguna) aldarrikatzen dute. *‘ibarrean < ibarreCan’* batetik eratorri beharko dugu, hortaz, eta *‘basoan < basoCan’* batetik. Arazoa balizko kontsonante horren nolakotasuna erabakitzerakoan heldu da: haiek ‘-g-’ dela erabakitzen dute, hartara izen bizidunetan ikusten dugun lokatibo markarekin parekatuz (*‘gizon-a-ren-gan’* bezalakoekin). Analisi honen arabera *‘etxe-a-n’* en ageri den ‘-a-’, hortaz, ez da artikulua definitua, jatorrizko formaren aztarna baizik (*‘etxe-gan > etxe-γan > etxe-Øan’*, gerora *‘etxe-a-n’* gisa interpretatu dena). Baina proposamen hau ez da arazorik gabea; analisiaren puntu honetan bi gogoratuko ditut nik, Trasken (1997) berak ere aipatuak:

1.- Nola azal toponimoetako formak *‘Maulen’* eta *‘Irunen’* bezalakoak izatea? Haiek berreiraitako ‘*-gan’ lokatibo horren arabera existitzen ez diren *‘**Maulean’, ‘**Irunen’* behar genituzke, *‘*Maule-gan’* eta *‘*Irun-e-gan’* balizko protoformetatik eratorriak. Trasken honi zera erantzuten dio, toki izenetan agertzen den ‘-n’ hori lokatibo zaharrago bat dela, toponimoetan gorde den arkaismoa.

2.- Baditugu, bestalde, Bizkaia aldeko *‘baten’* eta ekialdeko (ipar Euskal Herria eta Erronkari gutxienez) *‘etxen’* forma ustez arkaikoak. Argudiaketaren ildo beretik ditugu artikuludun eta artikulugabeko formen arteko txandakatzeak: iparraldeko *‘etxen niz’* (“nire etxean”) baina *‘Sophieren etxian’*, adibidez. Bada, halaber, orain berean aipatu dugun erronkarieraz ere pare-pareko zerbait adlatiboazko posposizioan, non forma orokorra ‘-ara’ izaki *‘etxera’* bezalakoak erabiltzen diren norberaren etxea denean aipagai, eta *‘etxeara’* bezalakoak bestela (ikus, argigarri, Angos (2005: 82)ko oinoharra). Ez dira gainera nolana hitzak, Himmelmannek (1998) adierazten duen bezala halakoak izaten baitira artikulua definitua hartzeko lan handienak dituztenak hizkuntza-arte alderaketan; gogoan har Himmelmannek berak ematen duen zerrenda, ingeleseko eta alemanierako forma artikulugabeekikoa: *‘at home’, ‘zu Hause’...* Eman dezagun, horretan ari garela, azken salbuespen bat, ‘-a-’ gabekoa, alegia: Tartasek (1666: 41) *‘soiñen’* darabilenean *‘kurutzia soiñen karreiatu’* bezalako esaldietan ez du ‘-ian’ (*‘soiñian’*) forma orokorra ematen; de Rijk berak (1981: 93) adibide hau ekartzen du gogora, baina baita modu ilun eta lauso batean azaldu ere: “[...] *soiñen* testu inguru honetan *soiñian* baino artezago eta aproposago zirudiolako edo”. Atal honen bukaeran espero dut azalpen labur baina egokiago bat ematea horrelakoentzako eta baita aurrerago ikusiko ditugun beste salbuespenentzako ere. Oraingo honetan ere Trasken ez du urrutiago jotzen, *‘etxen’* formarentzako azalpena inguruko hizkuntza erromantzeen eraginean bilatzen baitu, baina ez du *‘baten’* formaz deus esaten, ezta erronkarierazko adlatiboaz eta Tartasen horretaz ere.

Auzia honela aurkeztuta, aitortu beharrean gaude ez dugula ez bi lokatibo proposatu nahi ez *'baten'* eta *'etxen'* bezalakoak ondo azaldu gabe utzi nahi. Hipotesi alternatibo baten bila, egin dezagun de Rijkkek eta bestek proposatzen dutenaren aurka, baina ez erabat: onar dezagun hor, tartean, kontsonanteren bat behar genuela, *'lan-e-an'* bezalakoetako loturazko *'-e-'* hori azaltzeko, baina esan dezagun tarteko kontsonante hori ez zela *'-g-'*, hasperena baizik (ikus, gainera, Oñederraren (2005)eko lanean *'-g-'* honek, maila sinkronikoan bederen, aurkezten dituen arazoak zorrotz zerrendatuak). Hasperena artikulua jatorri beretik azaltzen da, *'*ha(r)'* erakusleko hasierako soinu horretatik eratorzen baita¹⁷ (ikus Eranskinean /h/ horren aztarnak). Gure ustez hipotesi honek aldeko du jatorri ezagun batean topatzen duela kontsonante ezezagun hori, eta jakina, bertatik jarraitzen da lokatiboetako *'-a-'* horiek artikulua edo artikuluaekin harreman dutako zerbait direla. Buka dezagun, baina, proposamen berri hau dakarren atal hau beronentzako arazo den zerbaitekin:

- Zergatik eragiten ditu jatorrizko balizko hasperenak emaitza diferentek absolutibozko eta lokatibozko formetan? Hots, zergatik dugun lokatibozko *'lanean'* baina ez absolutibozko *'**lanea'*, *'lan + ha(r)'* batetik eratorri nahi izan duguna beti.

Arazo hau gogoan hartuta jo dezagun hurrengo atalera. Bertan beste auzi jakin bat deskribatuko dugu, eta espero dut 4.2.3. atalean aurretik azaleratutako bi kontu horiek modu bateratu batean azalduko ditudala. Baina, deus aurreratu gabe, ager dezadan zein den bigarren kontu hori.

4.2.2. Mendebaldeko euskaretan: absolutiboa *'aldapea'*, lokatiboa *'aldapan'*¹⁸

Argitu dugu (horren esperantza dut behintzat) lokatiboetan dugun *'-a-'* hori ere artikulua dela, eta ez *'*-gan'* bezalako zerbaiten aztarna. Jar gaitezen orain atal honetako izenburuan adierazten den txandakatzeari begira, 4.2. atalari hasiera eman dion Mitxelenaren aipuan ere jasotakoa: mendebaldeko hizkeretan, hortaz, *'-a'*z bukatzen diren izenek artikulua hartzen dutenean zenbait disimilazio bilakaera agertzen dute, eta horrela *'aldapa + a > aldapea'*¹⁹ bezalako absolutiboak ditugu; bestalde, hasieran aipatu bezala, ergatiboak, genitiboak eta baita datiboak ere jokabide bera erakusten dute. Arazoa begien bistakoa da: zergatik ez da disimilazioaren emaitzarik agertzen lokatiboan, artikulua gainean eraikia bada? Hemen lokatibozko postposizioaren bilakaera diakroniko zehatza proposatzeko premia gailentzen da; horretarako deskriba dezadan xehean xehe orain artean bistaturiko aukera:

- Esan bezala, izen artikuludunaren gainean *'-n'* gehituz eratu zen postposizio hau. Hona bilakaera kronologikoa, laburbilduz eta zenbait pausoren abstrakzio eginez:

(15) etxe + *ha > etxea etxea + n > etxean
baina

¹⁷ Puntu honetan tentagarria izan liteke zubereraz aurki daitezkeen epentesirik gabeko formak, *'goizan'* vs. *'goizean'* orokorra, mendebaldetik ekialderako artikulua hedatzearen seinale gisa ikusteko. Hala izan bazen, artikulua ekialde "urrun" hartara iritsi zenerako ez zuen batere hasperenaren zantzurik izango eta hartara ez zuen inongo epentesirik eragingo. "Tamalez", itxura guztien arabera zubererazko forma hauek berrikuntzak baizik ez dira, Tartas eta Oihenarten lekukotza lagun, hauek *'-ean'* formakoak baizik ez baitituzte.

¹⁸ Eskerrak eman nahi dizkiet Andoni Rodriguezi datuon juzkuak segurtatzeko emandako laguntzarengatik. Era berean, datu hauen herriz herriko berri zehatza eskaini eta erreztu didan Ignazio Carrera ere eskertu nahi nuke.

¹⁹ Bada arau morfonologiko hau (Oñederraren terminoetan) betetzen ez duen zenbait hitz; eman ditzadan Oñederrak berak (2005: 393) gogoratzen dituenak: *'ama, aita, amama, aitita'*. 4.2.1. atalean emandako salbuespenekin batean (*'etxen, soñen'*) saiaturiko naiz hauek ere azaltzen 4.2. atal honen bukaeran.

(16) aldapa + *ha > aldapea aldapea + n > **aldapean

Lokatiboa izen artikuludunaren gainean eraiki izan balitz disimilazio gertaera horiek berdin-berdin erakutsi beharko lituzke, (16)ko adibideak adierazi nahi duen bezala; argi da horrelako azalpen bat ez dela baliagarria, egun ‘aldapean’ bezalako lokatiborik ez baita entzuten.²⁰ Honek tinko segitzen duen galdera berriz ere pausatzea garamatza: zein izan zen lokatibozko postposizio definituaren eraketa zehatza? Hona bada gure hipotesia, (15) eta (16)k asegabe utzi duten galdera erantzuteko dakardana:

·Lokatibozko postposizio definitua izen hutsaren gainean lokatibozko erakuslea gehituz eratu zen. Hona eskema, berriz ere tarteko pausoen abstrakzio eginez:

(17) etxe + han > etxean (18) aldapa + han > aldapan

Jakina, horrelako proposamena egiteak berehalako inplikazioak ditu alde batean baino gehiagotan: hasteko, pentsatu beharrekoa da ‘han’ eta ‘hartan’ en arteko harremana zein den zehazki, kronologikoa bereziki, bietan zaharragoa zein den erabakitzeke. Ez dirudi astakeria pentsatzea ‘han’, gerora adberbio gisa espezializatu bada ere, garai batean erakuslearen forma lokatiboa zela, Diesselen lanak (1997, 1999) lagun. Horrela bada, ‘hartan’ egungo erakuslearen lokatiboa forma berriagotzat ematea ez da zaila, ‘-ta-’ hori tarteko gainera.²¹ Hobeto azaltzeko geratuko litzateke berreraikitzean beti ematen den erakuslearen bukaerako ‘-r’ hori, zenbait arazo eman bailezake agian. Baina ez dugu oraingoz horretan sakonduko. Itxura guztien arabera, eta aldarrikatu nahi genukeen bezala, (17) eta (18) adibideetan emandako lokatibozko postposizio definitua eratzeko modua egokiagoa da absolutibozko formaren gainean eraikitzea baino, (15) eta (16) adibideetan irudikatua.

Lokatiboari eskainiko diodan azken atalean, hurrengoan, hemengo proposamena (esan bezala (17) eta (18)koa) 4.2.1. atalaren bukaeran agertu dugun arazoarekin uztartu nahiko dut. Jo dezagun horretara.

4.2.3. Lokatibo eta absolutibo definituen bilakaera kronologiko erlatiboa

Ikusi dugu, 4.2.1. atalean, zein zen arazoa: hasperena proposatzen bagenuen ‘lan-e-an’ bezalakoan ‘-e-’ epentetiko horiek azaltzeko, absolutibozko formak, ‘lana’ eta ez ‘**lanea’,²² “desazaltzen” genituen. Bestalde, 4.2.2. atalean ikusi dugu, mendebaldeko disimilaziodun formei jarraiki, hobe genuela lokatibozko postposizio definitua lokatibozko erakusle zaharraren (‘han’) gainean eratzea, absolutiboaren gainean eraikitzea baino. Bi auzi hauek elkarren osagarriak izan daitezke, eta batetik ateratzen ditugun ondorioak bestearentzako suposa dezakegun bilakaerari ondo egokitzen zaizkiola uste dugu; uztar ditzagun biak kronologia erlatibo zehatza eskainiz. Lehendabizi mendebaldeko euskaretan gertatutakoa

²⁰ Entzun entzun, zenbait tokitan, eta beharbada zenbait hiztun gazteren ahotan entzun daitezke, baina hiztunek eurek esaten dute disimilaziorik gabeko forma nahiago dutela. Bestalde, testuetan ageri den forma zaharrena zein den ez da dudarik. Egun horrelakoak aditzea analogia huts batez uler daiteke.

²¹ Horrelako egoeraren aurrean zinez esanguratsuak dirateke ‘han bertan’ eta ‘han berean’ bezalako bikoteak. Markel Lizasoaini eskertzen diot ohar hau.

²² Egia da, halere, eta lehenago arazoa aurkezterakoan ez dut aipatu, badela zenbait adibide horrelako itxura erakusten dutenak: Altsasu ondoko ‘Ibarrea’ toponimoa da bat, eta Orpustanek (1999) lekukotzen duen 1060ko ‘aranea’ bestea, gogoratuz 828ko ‘aranna’ baten berri ere ematen duela (kronologia erlatibo bitxia bien artekoa, bide batez). Orpustanekin arazoa da, halere, ez duela zehatz adierazten non aurkitutakoak diren aipatzen dituen formak (irakur Salaberriren (1999) iruzkina). Nolanahi ere den, ez da orain lekua eta garaia horrelako adibideen esanguratasunaren alde edo aurka egiteko.

irudikatuko dugu; lehen lerroan garaiak zenbakitu ditut, bigarreanean absolutiboaren bilakaera garai horietako bakoitzean eta azken lerroan lokatiboarena:

	1	2	3	4	5	6
ABS.	aldapa ha	> aldapa a	> aldapaa	> aldapea
LOK.	(aldapa han)	> (aldapa han)	> aldapa han	> aldapahan	> aldapaan	> aldapan

1. Taula. Mendebaldeko absolutibo eta lokatiboaren bilakaerak, bukaeran '-a' duten izenekin.

Hemen irudikatu nahi izan dudana zera da, postposizio sintagma lokatibo definituaren garapena, beti ere absolutibozko sintagma definituak erakusten duen bilakaeraren kronologia erlatiboarekiko. Pluralarentzat pentsatu izan den bezala (ikus atal oso honi hasiera eman dion Mitxelenaren aipua) lokatibo definitua ere beranduagoko, edo bestela nahi bada, artikulua absolutibo singularra baino gramatikalizazio maila apalagoko kontua da; taulako lehen lerroan adierazi dugun hirugarren garaitik laugarrenerakoan dago gakoa, izan ere garai horretan gertatzen baita absolutiboan Bizkai-Gipuzkoetako disimilazio ezaguna. Lokatiboaren lerroan, aldiz, ikusten dugu ez dela orduan horrelakorik gertatzen, izena eta erakuslearen arteko muga oraindik aski nabaria zela suposatu behar baitugu. Jakina, esan gabe doa honen arabera lokatibozko erakusle urrunak ('han'ek) denbora luzeagoan gorde zuela bere izaera morfologiko izenarekiko berezia. Gogoratu beharrekoa da, halaber, absolutibo definitua eratzean gertatzen den hasperenaren galerak ez duela zertan bat egin hasperenaren galera orokorrarekin, gauza jakina baita gramatikalizazio prozesuetan horrelako izaera fonologikoaren higatzeak edo leuntzeak arruntak direla.

Osa dezagun orain 2.1.1. ataleko arazoa argituko duen taula, 1. taulan eman ditugun garai erlatibo horiek errespetatuz; bigarren taula honetan, berriz ere, lehen lerroan garaiak adierazten dituzten zenbakiak jarri ditugu, bigarreanean absolutibozko formak, eta hirugarreanean lokatibozkoak; aldatzen den gauza bakarra zera da, bilakaera zein izen motari ezartzen diogun, hemen, esan bezala, kontsonantez bukatzen diren izenak izango baititugu jokoan:

	1	2	3	4	5	6
ABS.	lan ha	> lan a	> lana	> lana
LOK.	(lan han)	> (lan han)	> lan han	> lan-e-han	> lanean	...

2. Taula. Absolutibo eta lokatiboaren bilakaerak, kontsonantez bukatutako izenekin.

Espero dut bigarren taula honekin 4.2.1. atalean eman dudana arazoa ez dela honezkero arazo, gertaera bakoitzaren kronologia erlatiboa ondo zehaztuz gero argi geratzen baita absolutiboarentzako ez dugula zertan espero izan lokatiboan gertatzen dena. Horrela bada, bai kontsonantez bukatzen diren izenentzako bai mendebaldean '-a' bukaera duten izenentzako kronologia erlatibo bateratu bat eskaini dut, bi kasuetan ikusi izan diren gorabeherak ondo azaltzen dituen. Eman dezagun azken taula bat, aurreko bien batuketa baino ez dena, kronologia erlatibo bateratuak eskaintzen dituen azalpenak hobeto irudikatzeko xedez (ikus 3. taula).

	1	2	3	4	5	6
ABS.	aldapa ha	> aldapa a	> aldapaa	> aldapea
	lan ha	> lan a	> lana	> lana
LOK.	(aldapa han)	> (aldapa han)	> aldapa han	> aldapahan	> aldapaan	> aldapan
	(lan han)	> (lan han)	> lan han	> lan-e-han	> lanean	...

3. Taula. Kontsonantez zein '-a'z bukatutako izenen bilakaera.

Egia esan, lokatibo eta absolutibozko formen arteko garapen erlatiboa inportanteagoa da garai bakoitzarentzako eman dugun formaren sorrera eta iraupen erreala baino, bereziki hirugarren garaitik laugarrenerako jauzian, non '-a'z bukatutako izenen absolutibozko formetan disimilazioa gertatzen den; honekin batean, aintzat hartu behar den puntu nagusia zera da, garai horietan lokatibozko erakuslea, postposizio lokatibo definitua emango zuena, aski beregaina zela, ez erabat IS-n txertatua. Bertatik literaturan aipatu izan den plurala eta lokatiboa beranduagokoak diren intuizioa.

Azkenurreko ohar gisa, 1. taulako datuak mendebaldeko gertaerak azaltzeko helburuz osatu den neurrian, emandako azalpen osoa euskara horientzako bete-beteko argibidea dugu. Euskara horietan dugu hiru izen motaren araberrako banaketa osagarria: kontsonantez bukatzen diren izenak ('lan'), '-a'z bukatzen direnak ('aldapa') eta beste edozein bokalez bukatzen direnak ('baso', 'mendi'). Beste euskarak, '-a'z bukatzen diren hitzekin disimilaziorik erakusten ez duten neurrian, bilakaera horrekiko indiferenteak dira; era berean, nago 2. taulan emandako bilakaera euskalki guztietan berdintsu gertatu zela.

Atal honetako azken oharra, aspalditxo hitz emana baitut, "zintzilik" utzi ditudan salbuespen horietaz arduratuko da. Badirudi badela hitz zenbait artikulua definitua hartzeko trabak dituztenak: absolutiboan 4.2.2. atalean gogoratutako 'aita, ama, aitite, amama' eta lokatiboan 4.2.1.eko 'etxen~etxean, etxera~etxeara, soiñen'.²³ Honetarako emango dudana azalpena hitz hauen izaera semantikoa bilatuko dut. Ez da, noski, nik aurkitutako azalpena; aitzitik, beste hizkuntzetako lekukotzek indartuko duten patroia ezaguna dugu hau. Izan ere, ikusten dugu hitz hauek erreferentzia bakarreko edo edute besterenezina adierazten dutenak direla; horrelaxe aurkeztuak heldu dira Himmelmann (1998) bezalako lanetan, eta halaxe eman digu aditzera Companyk ere (1991), gaztelaniazko erreferentzia bakarreko izenak artikulua beranduen hartzen dutenen artean daudela gogoratzean (ikus gorago, 2.2. atalean artikulua hedatzerako emandako eskala). Ez ahantz, bestalde, 'errege' hitza nola erabili izan den euskal tradizio eta literaturan, Etxeparerekin hasita: artikulurik gabe eman izan da, eta zer, hain zuzen ere, 'gure errege' baino adierazpide erreferentzia bakarrekoagorik? Hona hemen salbuespen horiek modu bateratuan azalduak, artikulua definituaren hedatzeaz hizkuntza-artearen azalerazitako bilakabide orokorren argitaratzea. Honenbestez, uste dut bizkaierazko 'baten' dela salbuespen hauetako okerren azaldu dudana; ez dut oraingoz azalpen zehatzik buruan, baina agian ez gara oso urrun ibiliko berori artikulua indefinitu gisa hartzen badugu zenbatzaile baino, eta hortik artikulua definituarekin ezin elkartua.

Hona bada, atal honetan ikusi dugun bezala, artikulua zabaltzearen azterketak nolako laguntza ekartzen duen euskal deklinabidearen gorabeherak argitzen. Azterketa postposizioz postposizioz egin beharrekoa da, bakoitzaren nondik norakoa xedatzeko; ez gara orain horretan arituko, baina balio beza lokatiboarekin burutu dugun saiotxoak bide horretan hasierako urrats gisa. Bukatzeko, gogoratu nahi nuke deklinabide sisteman artikulua hedatzea ezin dela aztertu gorago bezala, testuingurua egin dugunean bezala; Himmelmann (1998)ri jarraiki, ondo ikusten da postposizioen (eta preposizioen) artean ere badela hierarkia jakin bat definitutasun markak hartzeko tenorean, eta askotan marka hori gabeak markadunak baino zaharragoak izan daitezkeela, baina baita alderantziz ere. Honetan guztian etorkizuneko lanetan sakondu beharko dugu, ezinbestean, seguraski bertan baitugu euskalkien arteko bariazio interesgarri eta ez erabat sakonki aztertua.

²³ Ezin bikoteak bete-betekoak izan, dirudienez Tartasek (1666) ez baitu 'soiñian' bezalakorik erabiltzen; gure burua zuritzeko esan beharra dago, halere, testu horretan ez dugula 'soiñ' hitzaren beste adibiderik topatu.

5. Laburbilduz

Lan honen arrazoibidearen ildoak ideia ezagun orokor baten gainean eraikiak dira: euskarazko artikulua definitua mendebaldetik ekialdera hedatu zen.²⁴ Bigarren atalean hedatze horren patroien berri eman eta euskal artikulua definituaz egiten diren analisi sinkronikoekin uztartu nahi izan du, azpimarratuz bi analisi mota horietan, sinkronikoa eta diakronikoa, izen mota eta testuinguru sintaktiko berberak har daitezkeela irizpide. Hirugarren atalean “diakronia sinkronikoari” begira jarri gara ondoren, esan nahi baita egun euskarak dituen aldaera dialektologikoei begira, ikusiz horietan ere irizpide beretsuak har zitezkeela aldaerak azaltzeko. Azkenik, laugarren atalean bi ohar ematen ditut: bata erronkarietazko erakusle herskari ahoskabetunez, zeintzuen arabera mendebaldetik ekialderako artikulua zabaltzea berresten den, eta bestea postposizio sisteman zabaltze hori nola gertatu zen argitu nahian, lokatibozkoan bereziki sakonduz, zenbait lanetan berreraiki izan den ‘*-gan’ lokatiboa baztertuz eta ‘-g-’ren ordezkari postulatua beharrezko kontsonantea ‘-h-’ zela aldarrikatuz.

Nolanahi ere den hori guztia, bada beste ildo nagusi bat gai hau diakroniaren ikuspegitik aztertzen dugunean, lan honetan batere joratu ez duguna: artikulua beraren sorreraren auzia da, barruan beste hainbat azpi-atal biltzen dituena. Artikulu definitua bezalako zerbait agertzearen motibazioa, horrelako kategoria funtzional berri bat sortzeko hizkuntzak bere garaian eskaintzen zuen testuinguru tipologikoa, artikulua definitua agertu baino lehenagoko definitutasuna markatzeko moduak zein izan ote zitezkeen... horrelako galderetan sakontzeak hizkuntzaren egitura orokorraren berri asko eman diezaguke, eta guk lantxo honetan hartu dugun ildoaren ezinbesteko osagarria izan behar dira halako hausnartzeak. Oraingoan, baina, ez da horretarako parada izango lan honetan, eta hurrengoetan argitara emango ditudan ideietan espero dut ildo horri ekin eta emaitza interesgarriak ekartzea.

6.- Bibliografia

- Abney, S., 1987, *The English noun phrase in its sentential aspect*. MITko doktorego tesia.
- Altuna, P. & Azkarate, M., 2001, *Euskal morfologiaren historia*. Donostia: Elkarlanean.
- Alvarez, J.L., 1977, “L’emploi de l’indéfini en souletin”, *FLV* 25, 29-55.
- Angos, A., 2005, *Erronkarietaz (I). Gramatika*. Donostia: Hiria Liburuak.
- Artiagoitia, X., 1998, “Determinatzaile sintagmaren hipotesia euskal gramatikan”, *Uztaro* 27, 33-61.
- 岡岡 2003, “The functional structure of the Basque noun phrase”. Goenaga, P. & Lakarra, J.A. (arg.): *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk*, *ASJU*ren Gehigarriak XLIV, 73-90. Bilbo: EHU-UPV.
- Company, C., 1991, “La extensión del artículo en el español medieval”, *RPh* XLIV, 402-424.
- Cyr, D., 1993, “Cross-linguistic quantification: definite articles vs demonstratives”, *Language Sciences* 15-3, 195-229.
- de Rijk, R.P.G., 1981, “Euskal morfologiaren zenbait gorabehera”. *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 83-101. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- 岡岡 1992, “Nunc' Vasconice”, *ASJU* XXVI-3, 695-724.
- Diessel, H., 1997, “The diachronic reanalysis of demonstratives in cross-linguistic perspective”, *Chicago Linguistic Society* 33, 83-97.

²⁴ Honetaz ari garenean, aintzat hartu beharra dugu abstrakzio maila batekin egin behar dela gogoeta, ez baitakigu zehatz orain 1500 urteko euskalkien konfigurazioa eta elkarren arteko harremana zein zen; horregatik, neurri batean anakroniko suerta baliteke ere, egungo egoera linguistikoaren koordinada geografikoak erabiltzen ditugu garai bateko gertaerez aritzeko.

- 何岡 1999, “The morphosyntax of demonstratives in synchrony and diachrony”, *Linguistic Typology* 3, 1-49.
- Etxepare, R., 2003, “Valency and argument structure in the Basque verb”. Hualde, J.I. & Ortiz de Urbina, J., 2003, 363-426.
- Euskaltzaindia, 1993, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Frajzyngier, F., 1996, “On sources of demonstratives and anaphors”. Fox, B. (arg.): *Studies in anaphora. Typological studies in language*, 33, 169-203. Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins.
- Greenberg, J.H., 1978, “How does a language acquire gender markers?”. Greenberg, J.H., Ferguson, J. & Moravcsik, E. (arg.): *Universals of Human Languages*, Vol. III, 47-82. Stanford: Stanford U.P.
- Himmelmann, N.P., 1998, “Regularity in irregularity: article use in adpositional phrases”, *Linguistic Typology* 2, 315-353.
- 何岡 2001, “Articles”. Haspelmath, M., König, E., Oesterreicher, W. & Raible, W. (arg.): *Language Typology and Language Universals*, Vol. 1. 831-841. Berlin-New York: Walter de Gruyter.
- Hopper, P.J. & Thompson, S., 1980, “Transitivity in grammar and discourse”, *Language* 56, 251-299.
- Hualde, J.I. & Ortiz de Urbina, J., 2003, *A grammar of Basque*. Berlin-New York: Mouton de Gruyter.
- Huang, Sh., 1999, “The emergence of a grammatical category definite article in spoken Chinese”, *Journal of pragmatics* 31, 77-94.
- Irigoyen, A., 1957, “Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue, escritas en vascuence roncalés y en castellano”, *Euskera* II, 119-170.
- Jacobsen, W.H. Jr., 1977, “The Basque locative suffix”. Douglass, W.A., Etulain, R.E. & Jacobsen, W.H. Jr. (arg.): *Anglo-American contributions to Basque studies: Essays in honor of Jon Bilbao*, 163-168. Reno: Desert Research Institute Publications on the Social Sciences, no. 13.
- Lakarra, J.A., 1983, “Oharrak zenbait arkaismoz”, *ASJU* 17, 43-68.
- Li, Ch. & Thompson, S.A., 1974, “An explanation of word order change SVO--> SOV”, *Foundations of Language* 12, 201-214.
- 何岡 & 何岡 1975, “The semantic function of word order: a case study in Mandarin”. Li, Ch. (arg.): *Conference on word order and word order change*, 163-195. Austin-London: University of Texas Press.
- Masica, C., 1986, “Definiteness-marking in South Asian languages”. Krishnamurti, B. (arg.): *South Asian languages: Structure, Convergence and Diglossia*, 125-146. Delhi: Motilal Banarsidass.
- Milsark, G.L., 1977, “Toward an explanation of certain peculiarities of the existential construction in English”, *Linguistic Analysis* Vol. 3-1, 1-29.
- Mitxelena, K., 1954, “De onomástica aquitana”, *Pirineos* 10, 409-455.
- 何岡 1955, “Franziskua, Peria, Jesusa”, *BRSVAP* XI, 113-115.
- 何岡 1961-1977, [1990], *Fonética Histórica Vasca 2ª edición, corregida y aumentada*. Anejos de ASJU, IV. San Sebastián: Diputación de Gipuzkoa.
- 何岡 1964, [1990], *Textos Arcaicos Vascos. ASJUren Gehigarriak* XI. Donostia: EHU.
- 何岡 1971, “Toponimia, léxico y gramática”, *FLV* 3, [Mitxelena, K. 1987, 141-167].
- 何岡 1979, “Miscelánea filológica vasca IV”, *FLV* 11, [Mitxelena, K. 1987, 435-463].
- 何岡 1987, *Palabras y textos*. Gasteiz: EHU Argitarapen Zerbitzua.
- Oñederra, M.L., 2005, “Fonologiaren mugak: alabea eta birjinak elexan”. Etxeberria, P. & Knörr, E. (arg.): *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia. IKER-17*, 379-397. Bilbo: Euskaltzaindia.

- Orpustan, J.B., 1999, *La langue basque au Moyen Âge (IX-XV siècles)*. Baigorri: Izpegi.
- Osawa, F., 2003, "Syntactic parallels between ontogeny and phylogeny", *Lingua* 113, 3-47.
- Salaberri, P., 1999, "Reseña: Orpustan, J.B.: *La langue basque au Moyen Âge (IX-XV siècles)*", *RIEV* 44-1, 205-209.
- Tartas, J., 1666, *Onsa hilzeco bidia*. www.armiarma.com web-guneko bertsio informatikoa, Josu Lavinek paratua.
- Trask, R.L., 1997, *The History of Basque*. London-New York: Routledge.
- 岡岡 2003, "The noun phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names". Hualde, J.I. & Ortiz de Urbina, J., 2003, 113-170.
- Silverstein, M., 1976, "Hierarchy of features and ergativity". Dixon, R.M.W. (arg.): *Grammatical categories in Australian aboriginal languages*, 112-171. Canberra: Australian Institute of Aboriginal Studies.

ZIRRIBORROA

ERANSKINA. Artikulua eta 1025eko Arabako herrien zerrenda²⁵

Bada Mitxelenaren testu zaharren bilketan (1964) Arabako herri izen asko dituen zerrenda bat. Herri izen horiek itxura arkaikoa dute: egungoak baino luzeagoak dira eta hasperenez josiak. Sailka ditzagun haietako batzuk:

(i) *-zaha: Hillarrazaha, Hascarzaha, Adurzaha, Otazaha, Gerfalzaha...*

Mitxelenaren esanetan (1964: 29) *-zaha* egungo *-za* atzizkiaren jatorrizko forma da; honen aurka bi motako adibideak ditugu:

(ii) *-za: Larraza, Izarza.*

(iii) *-ha: Arroiaha, Udalha, Aialha.*

Mitxelenaren analisiaren arabera (ii)koetan *-ha* gabeko *-zaha* genuke; (iii)koetan, aldiz, irudiz *-ha* hutsa dugu, *-za*-rik gabe. Zergatik ez pentsatu (ii)koa eta (iii)koa, zein bere aldetik, gauza diferenteak zirela? *-za* ezaguna dugun atzizkia genuke, eta *-ha* artikulua forma arkaikoa, hasperena gorde zuena. Eman ditzadan honen alde, neurri batean, egin lezaketen adibideak:

(iv) *-a: Larrea, Carrelucea, Olhaerrea, Zuffia, Zuhiabarrutia, Hazpurua, Hurigurenna, Zavalla...*

Hauetan ez da dudarik, amaieran artikulua definitua dute. Zergatik ez zuten hasperena gorde? (i)ekoak ez bezala (eta (iii)ko *Arroiaha* ez bezala) ez baitira *-a* bukaeradun izenak: *larre, zubi, buru...* Banaketa osagarrian dugu, beraz, artikuluko hasperena: *-a* bukaeradunetan gorde zen, *-aa* bilkura ez suertatzeko, noski. Bada hemen adibide esanguratsu bat, *Elhorzahea*, non seguruenik *-a + -a >-ea* disimilazio ezaguna dugun, artikulua eihartu baten gainean berri bat ezartzetik letorkeena. Orain arteko ez gain ditugun *Larrahara, Haiztara* eta *Bocara* izenentzako alde batetik, eta *Artahaza* eta *Barizahaza* izenentzako bestetik ez ditut gauzak hain garbi.

Etekin handia atera dakieke hasperena agertzen duten Erdi Aroko lekukotasunei, erakusleetako hasperena aitortzen badiegu:

(v) *-heta: Erroheta, Bagoheta, Azazaheta, Gazaheta, Sansoheta...*

Hauetarik ondoriozta liteke 1) *-eta* atzizkia ez dela latinetik mailegatua, eta 2) erakusleetako jatorria onartuta, *-ta-* bakartu genezakeela, leku-kasuetakoarekin harremanuz (*har-ta-n*).

(vi) *-hen: Arbelgoihen, Goiahen...*

Hauetan jatorria beharbada argiagoa da, beti onartua izan baita genitibo superlatiboarena, lehen adibidearentzako, bederen.

²⁵ Ricardo Gómez, Joseba Lakarra, Céline Mounole eta Blanca Urgelli datu hauen gaineko eztabaida eskertu nahi diet.